

IKASLEEN TXOKOA 117. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 3-4**Egileak:**

*Aitana Rodrigo Sánchez, Ainhoa Landazuri Peñagarikano, Aritz Apaolaza Gorostizu,
Ainhitz Zumarraga Arruarte, Enara Ansola Salaberrri eta Ibon Kerejeta Iraolagoitia (DBH 3)
Eñaut Zabalegi Altuna, Laiene Iturbe Morcillo, Lide Goñi Garcia eta Oier Arsuaga Zabala (DBH 4)*



Gure herria ezezagun bihurtuko ote da?

Gaur arratsaldean nire lagun batekin hitz egiten nabilen bitartean, gai polemiko bat ateratu da: turisten masifikazioa. Begi bistakoa da udan hainbat hiririk, kostaldekoek, adibidez, sufritzen duten egoera larria. Kale beteak, sonbrillez betetako hondartzak... Kanpotar ugari azaltzen dira udan, beraien oporrak masifikazio bihurtuz, eta arazo larria da hau askorentzat. Nire lagunak beste ikuspegi bat erakutsi zidan. Berak zioenez, bere aita tabernaria da eta uztaile eta abuztuko hilabeteetan izugarriko fakturazioa eskuratzen du ostalaritzak. «Nik ere ez dut gogoko gure hondartza eta txoko kutunenak leporaino beteta egotea, baina, haiei esker ahora eramateko janaria dudanez, ezin naiz kexatu» zioen berak. Hitz eta pitz jarraitu eta eztabaida polita sortu genuen, bakoitza bere iritzia defendatuz. Baina, iritzi ezberdinak edukita ere, biok gauza bera planteatzen genuen, gure herriak gurea izateari utziko ote dio?

Nire ustez, ikaragarria da kostaldeko herriek udaran sufritzen duten masifikazioa eta gobernuak neurri ezberdinak ezarri beharko lituzke, turismo seguru eta murriztuago bat lortzeko.

Hasteko, Zarautz bezalako herrietara, kanpina duten herrietara, askoz jende gehiago joaten da; leku paregabe batean egoteaz gain, familiarekin egoteko leku apropos bat dutelako. Horretaz gain, hotelak eta gaur egun famatuak egin diren 'Airbnb-ak' gehitzen dituzunean, milaka pertsona batzen dira, eta herriko bertako biztanleen artean nagusitzen dira. Donostiako unibertsitateak egin-dako ikerketa batek dioenez,



udan Euskal Herriko herrien populazioa %27 igotzen da eta nabarmena da gure kaleetan.

Sare Sozialek ere eragin handia dute gure gizartean. Tik Tok, Instagram... bezalako plataformetan igotzen diren gomendioak famatuak egiten dira, eta kala, mendi... leku sekretu asko ezagun bihurtzen dira. Egia da kultura aniztasun eta hizkuntza dibertsitatea sustatzen duen tresna bat izan daitekeela turismoa, baina modu murriztuagoan egingo balitz, herritarrak gustorago eta lasaiago biziko lirake.

Nire lagunaren azalean jarrita, ulertzen dut dioena. Bera ez dago masifikazioaren alde, baina kanpotik datorren jendeari esker, bere aitaren enpresak aurrera egiten du. Pertsona ugari daude egoera berdinean, uda guztia lanean, aurrera atera ahal izateko.

Nire ustez, egoera hau ikusita, gobernuak hausnarketa bat egin beharko luke. Dirulaguntzak eman edota frutadenda, taberna... lokaletan erosteko ekimenak antolatzea aurrerapen ikaragarria izan daitekeen pausu txikia da, milioika familien bizitza aldatuko lukeena. Mallorca eta Menorca bezalako

irletan ere nabaria da turismo egoera larri hau. Jendeak ezin du paseo soil bat eman haien lagun zein familiarekin, ezin dute hondartzako egun lasai batez gozatu... ezin dituzte lehen oinarrizkoak ziren ekintza arruntak bete. Horretaz gain, eskaera handia dagoenez, hotel eta eraikin berri asko egiten ari dira eta herriak zuten edertasun bereizgarria galtzen ari dira. Nik argi dut kontrol bat ezarri beharko litzatekeela eta argi utzi nahi dut gauza bat: arazoa ez da turismoa, neurrian izanez gero, aberasgarria izan daitekeelako; arazoa, kanpotik datorren jendeagatik, gure etxea ezezagun ikustea da, gurea izateari utzi eta mundu kapitalistarena bihurtzeko. Gure oinarriak ezagutzeko aukera izango dugu, ala bidetik gertatutako arazo guztien ondorioz, ezezaguna irudituko zaigu?

Hori dela eta, aipatutako guztia kontuan hartuta, hausnarketa sakon bat egin behar dela uste dut eta gai honi buruz gobernuak erabaki eta murrizketa dexente hartu beharko lituzkeela defendatzen dut.

Egilea: Laiene Iturbe Morcillo

Euskararen erabilera Realean

2026ko apirilaren 18an Realak Errege Kopa irabazi zuen eta gertaera hau hizpide izan da azken asteotan Donostian. Irabazi ondoren, Donostia hiritik paseatu zuten Kopa eta ospakizun ikaragarria egon zen. Horren harira, jokalariek eta entrenatzaileek hitz batzuk esan zituzten. Batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz.

Hasteko, esango nuke Euskal Herrian euskararen erabilera jaisten ari dela, eta horrekin batera, zer esanik ez Real bezalako futbol talde batean. Denok dakigunez, taldean euskaldun dezente daude, kanpotarrak baino gehiago. Nik uste dut euskararen erabilera gutxitzeko arrazoiak bat izan daitekeela

taldean dauden jokalariek batzuek euskaraz ez dakitenez, euskaldunek zuzenean egiten dutela erdaraz beraiek uler dezaten. Baina horrek ez du esan nahi euskaraz egiten saiatzen ez direnik; adibidez, Rino Matarazzok ospakizun egunean hitz batzuk egin zituen euskaraz, eta ez da gutxi, beste kanpotar askok ez lukete horrelakorik egingo.

Bigarrenik, Euskal Herrian kirol talde asko daude. Uste dut beraiek euskaraz inoiz baino gehiago bultzatu behar luketela. Aldageletan kanpotarrak pixka bat animatuz gero, euskara ikastera animatuko lirake eta orduan bai, giro euskalduna sortuko litzateke aldageletan.

Bestalde, azpimarratzekoa

da ospakizun egunean euskaraz gutxi hitz egin zutela. Hasieran euskaraz hasi ziren, baina gutxi iraun zuen eta segituan gaztelaniara pasa ziren. Uleritzen dut, jende gehiago ulertzeko egin zutela, baina Euskal Herrian gaude eta hemengo hizkuntza euskara da, ez gaztelera. Aldeko gauza bat bakarra, denek uler zezaketela zen.

Laburbilduz, hobetzeko gauza asko daude; uste dut jokalariek gehiago egin beharko luketela euskaraz eta kanpotarrei euskara ikasteko klaseak eman. Zuk zer uste duzu?

Egilea: Lide Goñi Garcia



Klima aldaketari aurre eginez

Azken urte hauetan, gure gizartean eztabaidatzen diren gai garrantzitsuenetako bat da klima aldaketarena. Hainbat gai jorratzen dira gehienetan, eta horietako bat aldaketa honi buelta emango dioten konponbideak bilatzea da. Gai honi buruz hainbat iritzi egon arren, nire iritzia hau da: posiblea da klima aldaketa geldiaraztea, baina erabaki handiak hartu beharko dira.

Lehenik eta behin, tamaina honetako arazo bati aurre egiteko, guztiz beharrezko da ahalik eta pertsona gehien kontzientziaztea arazoaren arriskuei buruz; izan ere, honek laguntza eta babes zabalagoa ekarriko lieke arazoari aurre egiteko metodoei. Hau horrela ez balitz, aurkaritza nabarmen bat egongo litzateke, berotegi efektu glo-

balean sinisten ez duten pertsona ugari baitira munduan.

Bestalde, klima larrialdia ekiditeko hainbat metodo erabiliak izan diren arren, nire ustez, ibilgailu elektrikoaren erabilera da erabakigarriena. Hauen fabrikazioa eta erabilera sustatzen badira, gobernu bezalako erakunde batek adibidez, erregai fosilen erabilaren kontsumoa eta erredukzioa asko murriztuko litzateke, berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketa murriztuz.

Laburbilduz, klima aldaketa arazo larria izan arren, pauso eta erabaki egokiak hartzen badira, kontzientziazio kanpainak eta ibilgailu elektrikoaren sustapena adibidez, badaugu esperantza arazo hau konpontzeko.

Egilea: Eñaut Zabalegi Altuna

Aitona-amonak

Hasteko, aitona-amonek gazteen bizitzan duten garrantzia oso handia da. Batez ere, asko erakutsi diezaietelako gazteei.

Lehenik, gazteak edo ume txikiak aitona-amonekin asko egoten dira, normalean gurasoak lana dutelako edo zailtasunengatik ezin dituztelako zaindu. Bigarrenik, aitona-amonek garrantzia handia hartzen dute nerabeen bizitzan, normalean erreferente bezala eta baita miresmenagatik ere. Nire bizitzan edo egunerokotasunean aitona-amonekin denbora asko pasatzen dut; nire aitona adibidez, niretzat lagun hoberena da eta baita ni berarentzat erei. Txikitatik egon naiz beti berarekin eta era berean, horregatik nago sartuta pelota munduan.

Bestalde, niri iruditzen zait aitona-amonek nerabeei asko lagundu eta erakutsi diezaietelako

tela eta hori oso garrantzitsua da, beraien bizi-esperientzia transmititu baitiezaieke. Esate baterako, txikitari nola sufritu zuten etxean, gurasoekin lanean, etab. Niri hori gustatzen zait, istorio horiek entzun eta nik ere haieetatik asko ikas dezakedala ikustea, niri gero bizitzan gauza horiek tokatzen zaizkidanean egiten jakiteko, gauzei nola aurre egin ikasteko. Gainera, nik nire seme-alabei ere horixe erakutsi nahiko nienke, aitona-amonek erakutsi dizkidaten gauzak, eta transmisio hori polita iruditzen zait.

Bukatzeko, aitona-amonak dira nire ustez bizitzan izan ditzakezun gauza hoberena, ez bada hoberenatarikoa, batez ere gauzak beste modu batera erakusteko eta bizitzan laguntzeko.

Egilea: Oier Arsuaga Zabala

Esnatu nintzenez...

Esnatu nintzenez, amona nuen ondoan. Gosari bat zuen eskuetan. Nire gosari gustokoena, laranja zukua eta bi tostada. Oso pozik jarri nintzen. Zelako sorpresa! Nire aurpegiak dena esaten zuen, amonarenak ez bezala. Ez zuen betiko poztasuna adierazten. Amonen poztasuna. Arraro zegoen. Ez zegoen beti bezain alai. Zer pasatuko zitzaion?. Niri begira geratu zen. Ezer esan gabe. Hantxe, isilik. Biok bakarrik isilpean.

Arratsalde guztia, kontuari bueltak eta bueltak ematen igaroen nuen.

-Zer gertatzen da?- galdetzen nion neure buruari, behin eta berriz.

-Zer ote du amonak?- galdeztzen nuen, inoren erantzunik jaso gabe.

Oso triste nengoen, zer du ba amona nirekin?. Atzera egin nuen une batez. Hondartzan igarotzen genituen arratsaldeak gogorarazi nituen. Biok bakarrik, hondartzan. Olatuekin jolaseka, elkarrekin. Orain, ordea, dena aldatu da. Gauza ez da horrelakoa. Ni hemen nago galdetu ez dudana erantzun baten zain eta amona niri begira. Zer ote du?

Esnatu nintzenez, ama nuen ondoan. Eskueta zerbait zekarren. Jostailu bat. Nire jostailu gustokoena. Kotxe erraldoi bat. Txikitan askatzen ez nuen jostailua. Oso pozik jarri nintzen. Garaiko momentu ederrak gogorarazi nituen. Amak aldiz, ez zuen poztasun berdina islatzen. Begiak bustiak nabaritzen nizekion. Momentu batetik bestera malkoa aterako zitzaiola zirudien. Asko preokupatu nintzen. Zer ote du amak?. Galdeztzera ausartu nintzen. Baina ez zitzaizkidan hitzak ateratzen. Ezin nuen hitz egin. Ezin nion galdetu. Ez nintzen ausartzen. Beldurak irensten ninduen.

-Ergel hutsa zara!- errepikatzen nion neure buruari.

-Ez zra batere hausarta!- esaten nuen ahoz gora.

Oraingo honetan, masailak bustiak nabaritu nituen. Ama ez zen negarra egiten zuen bakararra. Jada bi ginen. Baina, ez ginen fisikoki kontaktuan. Ama ez zegoen nire alboan. Joan egin zen. Momentu horretan, amaren besarkada baten beharra nuen. Bere besoek nirekin kontaktuan egotea behar nuen. Gure bihotzak elkar estutzea. Hala ere, hori ez zen gertatuko. Ama ez zegoelako nirekin. Kottzea hartu eta estuki besarkatu nuen. Txikitan egiten nuen antzera. Momentu hartan errealitatik guztiz hurrin lo geratu nintzen. Bakarrik, isilpean.

Esnatu nintzenez, institutuko lagunak nituen ondoan. Lagun maitatuena. Zerbait zuten eskuetan. Lore batzuk. Nire lore gustukoena. Mitxoleta horiak ziren. Lorontzi handi batean zeuden. Arte hezkuntzan egin nuen lorontzia. Lagunekin batera egin nuen. Besarkada bat eman nahi nien. Baina ezin nuen. Eskuak lotuta bezala nabaritzen nituen. Agobiatu egin nintzen. Ezin nintzen askatu. Saiatzean mina hartzen nuen. Aurpegia kolorez aldatzen zitzaizkidan nabaritu nuen. Lagunek preokupatuta egongo balitz bezala begiratzen ninduten. Zer ote dut?. Zer gertatzen zaie?. Lurrera eroriko nintzela nabaritzen nuen. Ez nuen ezer ulertzen. Zorabiatzen hasita nintzen. Begiak ixtea erabaki nuen eta hantxe geratu nintzen. Esnatzeko esperantzaz.

Esnatu nintzenez, anaia nuen ondoan, Aimar. Asko maitatzen dut. Honek ere, zerbait zekarren eskuetan. Poltsa moduko bat. Arropa zuen poltsa bat. Asko poztu nintzen. Zelako sorpresa! Gehien gustatzen zitzaizkidan arro-

pa dendaren poltsa erraldoi bat. Irekitzeko irrikitan nintzen. Nire aurpegiak gogo berak islatzen zituen, Aimarrenak ez bezala. Arraro begiratzen zidan. Noiz-behinka bekainak ximurtzen xituen. Ezagutzen ez nindudalaren antzera. Momentu hartan, beroa sentitu nuen gorputz guztitik zehar. Agobiatzen hasita nintzen. Labazko laku batean sartuko banintz bezala nabaritzen nuen nire gorputza. Zer gertatzen da?. Ez nuen ezer ulertzen. Bere arreba naiz, nola ba ez ninduen ezagutuko?. Zer aldatu da?. Oraingo honetan ez zidan begiak ixteko astirik eman. Hantxe geratu nintzen. Isilpean.

Esnatu nintzenez, osaba nuen ondoan. Kaxa handi bat zuen eskuetan. Zulo batzuk zituen. Iriki bakarrik ez nuen nahi. Jarri nuen aurpegia ikusterakoan, kaxa luzatu zidan. Nik eskuetan hartu eta irekitzen hasi nintzen. Barrualdean, txakur bat topatu nuen. Nire txakur arraza gustokoena. Ahoa bakarrik irekitzen zitzaizkidan sumatu nuen. Arrituta nengoen. Osaba ez bezala. Arraro zegoen. Zer ote zuen?. Ez nuen ezer ulertzen. Zer gertatzen da?. Hainbat egunez sentimendu berdinak nituen barnealdean. Ez ziren desegiten. Txakurra eskuekin hartu nuen. Bularreruntz bultzatu nuen, estuki besarkatuz. Txakurak ez zirudien oso gustura. Hau ere, arraro zegoen. Nere besoetatik alde egin nahi zuela ematen zuen. Ze arraiio?. Bat batean, doministu egiten hasi nintzen. Oso gorri jarri nintzen eta gorputzetik azkure handia sumatzen nuen. Osaba erabat harritu zen. Txakurra alde egin zuen, nire besoetatik. Osabak hartu eta lasaitzeko bakarrik utzi ninduten. Pixkanaka, gorputzeko atal gorrituak bere berezko koloreruntz bueltatu ziren. Erabat lasaitu nintzen.

Momentu hartan, burura etorri zitzaizkidan tzakurrekin igarotako azken pasarteak. Berdin jartzen nintzen. Gorri-gorria eta gorputz guztia bero-bero. Hantxe ulertu nuen. Alergia nien txakurrei. Alergia handia, gainera. Baina ez zidaten inoiz leporatu. Hain nituen gogoko. Ez zidaten esan nahi. Ez zeukaten inolako asmorik. Horregatik, milaka eta milaka aldiz eskatu arren, ez zidaten etxean txakur baten jabe izaten utzi. Zihurrenik osaba ez zen hortaz ohartuko.

Oso heldua ez izan arren, munduaren piezak lotzen hasita nintzen. Puzleen piezak. Batzuk besteak baino handiagoak. Batzuk besteak baino azkarrago lotzen nituen. Txakurarena lotuta nuen jada, baina, orain, nirekin zer ikusia duen bat falta da.

Azken egunak arraro samarrak izan dira. Barnean dituten pertsona maitatuena zerbait oparitu didate. Edozer, baina nire gustokoena. Zergatik?. Denak bisita egiten zidaten. Goize-ro. Esnatu eta aurpegi ezagun bat. Familiar edo lagun bat. Gertuko bat. Gaur goizean aldiz, ez zen horrelako.

Esnatu nintzenan, ezaguna ez nuen norbait nuen nire ondoan. Txuriz jantzita zihoan. Dena txuriz. Ahoa estalia zuen. Zein ote zen?. Ez nuen tutik ulertzen. Ez zitzaizkidan ezaguna egiten. Ez zegoen nire burmuinean kokatuta. Aurpegi berria zen. Nire burmuineko armairuan tokia behar zuena. Berria zen. Begiak eskuekin igurtzi nituen. Goizeko begi itxiak desegiteko asmoz. Ahoa estalia zeraman aurpegiak begiratu egin zidan. Eskuarekin agurtu bezala egin zidan.

-Kaixo- erantzun nion, zein zen bereiztu gabe.

-Egun on!- esan zidan, oso alai.

-Marta dut izena, egun

hauetan zurekin egongo naiz-jarraitu zuen.

-Proba batzuekin hasiko naiz, argi?- galdetu zidan.

-Itxaron, itxaron- erantzun nion.

-Medikua zarela esan nahi duzu?- galdetu nuen dardarka.

-Bai, egon hauetan zehar gertatzen joan zaizuna aztertuko dugu zehaztasunez- erantzun zidan Martak.

Erabat nahastuta nengoen. Hitz egin nahi nuen, baina ezin nuen. Ez neukan haizerik. Handik ihes egin nahi nuen, baina ezin nuen. Erabat lotuta nintzen. Ingurura begiratu eta ospitalean nintzela ohartu nintzen. Kamila batean etzanda. Ahoa estaltzen zidan maskara batekin eta tubo zeterik. Ez zen lehenengo aldia.

Proba horiek egiten utzi nion. Marta, beraz, hasi egin zen. Ateko lehio txikitik, amona, ama, Aimar eta osaba zeuden begira. Lagunak ere bai. Denak zeuden. Hantxe beste puzlea lotzen hasi nintzen, handiegia nire adinarentzat. Martak, kontu handiz ispilu bat luzatu zidan. Ez nintzen ezagutzen. Ez nintzen ni. Beste pertsona bat zen. Malkoak bata bestearen atzetik erortzen ziren. Lehioreen beste aldekoak ere horrela zeuden. Korapilo erraldoia nuen gurputz osoan. Estuki lotuta zegoena. Ezin nuen askatu. Ez nuen arnasarik. Ez nintzen ni. Zergatik niri?. Ez nuen merezi. Ez du inorrek merezi. Txikia nintzen. Oso txikia. Ateren beste aldekoak alde egin zuten. Martak bakarrik utzi ninduen. Bakar-bakarrik. Hantxe, gela karratu horretan. Egunak igaroko nituenak. Borrokan. Gaixotasunarekin lehian. Bera nire aurka. Berriz ere, neure burua ezagutu arte.

Egilea: Aitana Rodrigo Sánchez

Motxileroak

Nik motxilero bezala bidaiatu beharko banu, leku asko bisitatu nahiko nuke, hala ere, bat aukeratu beharko banu, Hego-Amerika izango litzateke. Bertan hainbat herrialde bisitatu nituzke, Peru, Bolivia eta Txile, besteak beste. Hiru herrialde hauek bisitatzeko bost aste inguru beharko nituzke, bisitatzeko leku asko daudelako, eta maiatzean egingo nuke, klima eta turista kopuruaren aldetik gomendatzen dena baita. Bestalde, bidaiaria hau norbaitekin

egitea gustatuko litzaidake, bizipenak partekatzeko, esaterako, familiako kideren batekin edo eta lagun batekin.

Hasteko Bilbotik hegaldi bat hartuko nuke Limara, Peru-ko hiriburura, hegaldia joan-etorrikoa izango litzateke merkeago da eta. Lehenengo egunean Lima bisitatu nuke, bertako gastronomia probatu eta leku ezagunenak bisitatu, hala nola, erdigunea. Horrez gain, herrialde berean bisitatu nukeen hurrena Machu Picchu izango

litzateke, ziur nago denok entzun dugun leku bat dela, ospe handia du eta, baina, hala eta guztiz ere, leku zoragarria dirudi bidaiaria egiteko. Herrialde honetan ia bi aste egongo nintzateke, Cusco, Huaraz eta Huanchaco bezalako tokietan.

Bigarren herrialdea Bolivia izango litzateke, bertan ere ikusteko toki zoragarri asko daude, horien artean, Salar de Uyuni, Titicaca lakua, Sucre hiria eta La Paz hiria. Hauetako leku batzuk bisitatzeko egun bat baino gehia-

go behar denez, Bolivian ere ia bi aste egongo nintzateke, beste horrenbeste egoteko hirugarren herrialdean, Txilen. Azken herrialde honetan azkeneko egunak igaroko nituzke, Atacamako basamortua, Patagonia eta inguruko herriak bisitatu.

Herrialdean barrena bidaiatzeko autobusak erabiliko nituzke, antzeko bidaiak egin dituztenek hori gomendatzen dute eta, aukera merkeena eta errazena delako. Horrez gain, lo egiteko eta deskantsatzeko motxilero gehienak bezala, hostal desberdinetan egingo nuke lo, ekonomikoki aukera hobea delako, izan ere, bidaiaria hau ez litzateke

merkea izango.

Azkenik, toki hauek guztiak bisitatu ondoren, motxila bizkarrean hartu eta berriz ere Limara joango nintzateke, Euskal Herrira joango litzakeen hegaldia hartzera. Hasieran bost aste denbora luzea dela dirudien arren, ziur nago bidaiaria hau oso motz geratuko litzaidakeela Ameriketako ikusteko dagoen guztiarekin alderatuz, beraz, behien hegaldia hartuta Bilbora etortzeko, egindako bidaiaren inguruan pentsatuko nuke.

Egilea: Ainhoa Landazuri Peñagarikano

Sare sozialak edo sare antisozialak?

Bizitza ikusten ari garelakoan pantaila bati begira gabiltza. Parisera joan eta Eiffel dorreari begiratu beharrean argazkiak ateratzen aritzea, baita mendira joan eta paisaia zoragarriaz gozatu beharrean Instagramerako argazki perfektuaren bila aritzea. Ez al da absurdoa? Noiz ohartuko gara sare sozialek bizitza disfrutatzea ukatzen digutela?

Ikuskier-ek EHUKo ikasleei egindako inkestaren arabera, Whatsapp ikasleen %99,9ak erabiltzen du, horietatik erdiek 30 eta 90 minutu artean. YouTube, berriz, %96ak erabiltzen du eta Instagrama erabiltzen duten erabiltzaileen bi herenek 20 minutu eta 2 ordu artean erabiltzen dute. TikTok eta Facebook ikasleen %85,8ak eta %91,3ak erabiltzen du hurrenez hurren. Egundoko menpekotasuna daukagu sare sozialekin, bai, DAUKAGU, nik ere kalera irten aurretik mugikorra begiratzen dut eta nahi baino denbora gehiago egoten naiz hari begira. Errealitate aldantzen gaituzte eta, gainera, denbora azkarrago pasatzen da.

Aurreko egun batean autobusean nindoan eta amaieran pertsona bat TikTokeko bideoak bolumen altuan ikusten ari zen, autobuseko guztiek entzuteko moduan. Ez da lehen aldia hau ikusten dudana eta gainera, adin guztietako jen-

dearen kontua da, gazteagoak Instagramen eta zaharragoak Facebooken, baina denak berdin. Jendeak bideoak bolumen altuan ikusteko ohitura du eta gainera, ondokoa molestatura sentitzen dela ohartu gabe eta garrantzirik eman gabe. Zenbat denbora egongo da halako pertsona bat etxean bideoak ikusten, ohitura hartu eta autobusean dagoela ahaztu bazaio?

Gainera, orokorrean pantailak gure buruarekin bakarrik egoteko ezinegona sortzen ari dira; izan ere, geroz eta ohitura handiagoa ari da bilakatzen otorduetan mugikorrari begira egotea. Honek segurtasun-erak sor ditzake. Hori gutxi balitz, ohitura hau txikienei barneratzen ari gara, lehen umeari janaria ahora sartzeko hegazkinarena egin behar zena, orain, tableta begi aurrean jartzera iritsi gara, "zer ikusi, hura ikasi".

Uste dut, garbi dagoela sekulako hondamendia datorkigula gainera, eta nire iritziz, hau aldatu beharra daukagu. Noski, jada ezin dela ezer handirik egin mundu osoan zehar garatzen ari den arazo honekin, baina bakoitzaren kontzientzia nahikoa iruditzen zait aurrerapauso bat emateko.

Egilea: Aritz Apaolaza Gorostizu

Gazteok ez dugula irakurtzen, hori ere gure errua al da?

Eskema zaharrei eusten jarraitzen dieten irakasleek gure irakur-gaitasuna ebaluatzen dute, gure egoera aztertu gabe. Irakurriko dugu, baldin eta gure iritzia kontuan hartzen badute noizbait, eta aukeratzen uzten badigute.

Egun, frogatuta dago irakur-gaitasunak eta, horrekin batera, irakurzaletasunak beherakada handia eduki duela azken urteotan. Nire eguneroko esperientziatik kontatuta ere ikusten dut hori gelan, adibidez, irakurliburuak irakurtzea agintzen digutenean kide askok ez baitituzte irakurtzen. Eta irakurritako ere, gero horien inguruko azterketak zailak egiten zaizkie, ez dutelako erraz ulertzeko gaitasun hori. Hala ere, alde batetik normala iruditzen zait, jartzen dizkiguten liburuak ez baititugu aukeratzen. Hortaz, oso zaila da denon gustukoak izatea eta irakurtzeko motibagarriak izatea. Kasu horietan errazena ez irakurtzea da; aitzakia bila dabilenak, halere, beti aurkitzen du.

PISAko ikerketa batek adierazten duenez, 15 urteko gazteen artean irakur-gaitasunak beherakada nabarmena izan du Europar Batasuneko hainbat herrialdetan 2012tik gaur egunera arte.

Gaur egun, ia denok dugu mugikorra eta nahiz eta ez dakigun, tresna horrek

guri buruz ia dena daki; dena dakiela ez esateagatik. Teknologia berri horrek guk nahi ditugun gauzak ematen dizkigunez, horretara ohituta gaude. Erraz irakurtzen dira sare sozialetan barreiatzen diren egiazko, eta askotan, gezurra diren gauzak. Informazio guztia tresnak ematen digunez gero guri liburu bat irakurtzeko agintzen digutenean, zaila egiten zaigu.

Institutuaz gain, gazte askok ez dute irakurtzen uste dutelako ikastetxean irakurrarazten dizkiguten liburuak bakarrik daudela eta orduan aspergarria egiten zaie. Baina usteak erdia ustel. Ez dakitena da irakurketa beste mundu bat dela, bertan, istorioetan barna murgil zaitezkeela eta zure irudimena sakon landu dezakezula. Hori antzeman egiten da. Irakurtzen duen orok hiztegi aberatsagoa du, bai hitz egiterako garaian, eta baita idazterako orduan ere.

Ikasleok lagundu beharko genuke liburuak aukeratzeko garaian. Ez gara «helduarorako prestatzen» irakasleek aukeratzen dituzten liburuak irakurtzerakoan. Gerora ere, handitu ahala, gure erabakia izango baita zer eta nola irakurri.

Egilea: Ainhitz Zumarraga Arruarte

Azterketekin ikasi egiten dugu?

Ohikoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera azterketek pisu handia izatea. Baina azterketak egiten ikasten dugu? Azterketekin ebaluatzea egokia da?

Ebaluazioa beharrezkoa dela ezin dugu ukatu, baina azterketak aukera egokiena izatea zalantzan jar daiteke. Izan ere, ikasi beharrean askotan bestelako eragina izaten du.

Batetik, urduritasuna, kezkak eta ezinegonak askotarikoak izaten dira azterketa askoko garaian. Honek eragin zuzena du azterketa egiterako momentuan eta ondorioz, nota baxuagoak izaten dira. Gainera, nota horiek duten garrantzia handiagatik are gehiago handitzen dira azterketekiko sortutako emozio negatiboak. Horregatik, azterketak kendu beharrean aukera ona izan daiteke, hauei amaierako notan duten pisua jeistea. Horrekin batera presio gutxiago izango du ikasleak eta azterketa hobeto egiteko aukerak gehiago izango dira.

Hala ere, ikasle asko izaten gara ikasgeletan eta guztiei ebaluatzea era pertsonalizatuan zaila izan daiteke. Hau da, azterketekiko ezinegona ikasle askok partekatzen duten egoera izan arren, badaude hauetan trebeak direnak ere. Beraz, guztiak ebaluazioarekin gustura

egotea erronka bat da.

Azkenik, azterketak egitea ez da inklusiboa, izan ere, badaude irakurketa-idazketa arazoak, arreta arazoak, desgaitasuna duten ikasleak eta hauek azterketa bidez ebaluatzerakoan aldaketak egitea beharrezkoa da, baldintza ezberdinetan daudelako. Beraz, ebaluazioa aldatu behar da inklusiorako bidean doan hezkuntza lortzeko.

Ondorioz, ebaluatzeko modu ezberdinak frogatzea ezinbestekoa dela iruditzen zait, prozesuaren momenturen baten ikasle guztiek ulertuak izateko aukera izango dutelako. Horrela, emaitza positiboak eta ikasgelarekiko egokienak ematen dituen ebaluazio sistema ezarri daiteke, arreta pertsonaltuagoa eskainiz. Hezkuntza inklusiboago eta anitzago baten aldeko borrokan, egoera aldatzea ezinbestekoa da.

Laburbilduz, ikasleen ongizate emozionala kontuan hartzea ezinbestekoa da eta azterketak sortutako kezka, urduritasuna eta ezinegonei aurre egitea beharrezkoa da, ikasketa sakonago bat emateko. Memoria lantzea beharrezkoa da, baina zein preziotan?

Egilea: Enara Ansola Salaberri

Txirriiiiiin!

Gaur egungo ia ikastetxe guztiek goizeko zortziak inguruan ireki eta arratsaldeko ordu-biak edo hirurak aldean ixten dituzte beraien ateak. Baina azken urteotan jende asko irakasleentzat zein ikasleentzat oso garrantzitsua den kontzeptu bat ahazten ari da: loa. Egun, gero eta gehiago ari da normalizatzen egunero 8 ordu baino gutxiago lo egitea eta atsedenen garrantzia ahazten ari gara. Nik, iritzi artikulua hau ikastetxeetako ordutegiarekin lotuko dut eta zuri, artikulua hau irakurtzen ari zaren bitartean, eta niri idazten dudana bitartean, etortzen zaigun galdera erantzun dugut: Loa hain garrantzitsua al da?

Hasteko, esan beharra daukat nire esperientzia pertsonalean oinarrituz, ikastolara lo faltarekin iristearen ondorioz dudana produktibitatea jaitsi egiten dela; izan ere, energia gutxiarekin iristen naiz. Gainera, irakasle eta gazte askok arratsaldea oso lanpetuta dugu eskolaz kanpoko ekintzekin, eta hori dela eta, institutuan bukatu gabe geratzen zaizkigun lanak gauean egiten amaitzen dugu. Horrela, lotarako orduak gutxituz.

Bestalde, Medline Plus dioenez, gazteok lo ordu gutxiago behar ditugula dirudien arren, egia guztiz kontrakoa da. Nerabeok 9 ordu baino gehiago behar ditugu gauero. Aipatu dudana erakunde horren arabera, nerabeak batezbeste 23:00ak inguruan oheratzen dira eta goi-

zako 6:00ak eta 7:00ak inguruan jaikitzen dira, eskolara garaiz iritsi ahal izateko. Horrek ezinezkoa egiten du 9 ordu lo egitea. Hainbat ikastetxe beraien ordutegia aldatu dute beranduago hasteko eta ondorioz, ikasle kalifikazioak eta jarduera atletikoa hobetu egin dira eskola horietan.

Sociedad Española de la Adolescencia dioenez, espainiarren %30ak 7 ordu baino gutxiago egiten du lo eta haurren %70ak 7 ordu eskas. Hau oso datu kezagarria da; arreta, memoria, adimena, osasun kardio-metabolikoa eta nahasmentu neurodegeneratiboak lo faltarekin lotzen baitira. Gogo-aldartean eta errendimendu akademikoan ere badu eragina. Esaera zaharrak dioten bezala, ondo eginez gero loa, osasuna ondo doa.

Azkenik, espero dut gure osasunean loak duen garrantzia nabarmendu izana, baina esan beharra daukat ikastetxeentzat ez dela erraza ordutegia aldatzea; izan ere, orduan eta beranduago hasi, gero eta beranduago bukatzen dugu eta eskolaz kanpoko ekintzekin uztartzea zailagoa bilakatzen da. Horregatik, esango nuke errazagoa dela gure lotarako ordutegia aldatzea ikastetxekoa baino. Beraz, utzi artikulua hau irakurtzeari eta zoaz lotara! Berandu da eta!

Egilea: Ibon Kerejeta Iraolagoitia